

2021KO HERRI ALDIZKARIA



AUZAPEZAREN HITZA

Herritar maiteak,

Aitzineko urtea bezala, nehoiz ikusi gabeko osasun larrialdi honek markatu du 2021. urtea. Bizi normaltsu batera itzuliko ginela espero genuelarik, hara non nazioarteko larrialdi batean gauden, iragana zela uste genuelarik, eta gure gizartearen ahuleziak erakusten dituen.

Haatik, Aisialdi Zentroko hezkuntza eta animazio taldeen eta zinegotzien lankidetzak eta engaiamendua goretsi ditzagun ; ahalegin guziak egin dituzte gure haur ttipiak baldintza onetan errezibitzeko, irakaskuntzaren eta eskolaldi inguruaren arloetan. "Lehengo biziaren" kutsu bat hautemateko bidea eskaini diguten kultura-, besta- eta kirol-ekitaldiak antolatu dituzten herriko elkarteak ere eskertu nahi ditut.

2022. urteari dagokionez, burgu barneko erreferentzia-planaren apailatzearen abiatzeak markatu du urtea. Herritarrekin parte hartzailea nahi dugun ikerketa honek elkarrekin antolaketa norabide nagusien finkatzea ahalbidetuko du : gure burgu barnearen balioztatze, seguru ezartze eta hiritze hitzetan. Ildo horretatik, biltzar publiko eta lan tailer batzuetara gomitatua izanen zarete laster, gai horiei buruz trukatzeko.

Aldi berean, herria lur-funtsen estrategia bat eramaten ari da ELTEParekin partaidetzan, gure gazteei bizitegi helgarriak ukaitea ahalbidetuko luketen eta jasaten dugun mugarik gabeko espekulazio bizkor hori murriztuko luketen lur-funtsen arloko aukera guziak baliatzeko.

Hondakin bilketaren erreformari dagokionez, Euskal Elkargoak maiatz hastapenean gauzatuko du. Bilketa gune berriak antolatzeko obrak abiatuko ditugu laster Ehulatea heinean, Aiherrako bidean eta Mendiburua bidean ; biltzar publiko baten bidez bereizketa modalitate eta hondakinen kudeaketa berriak aurkeztuko dizkizuegu laster.

Herriko zerbitzuei dagokienez, Arberoan Alaiki aisialdi zentroak proposatzen duen harreraren kalitatea baieztatzen duen haur kopuru gero eta handiagoaren aitzinean, herriak euskarazko harrera eskaintza aberastu nahi izan du. Zentroan ibiltzen diren ibar osoko hurrei euskarazko animazio berriak eskaintzeko bidea emanen dien "Euskaraz josta" labelizatze urraspidean engaiatu berri da herria.

Ildo beretik, herriak eta Ipar Euskal Herriko beste 48 herrik hizkuntza gutituen tokiko ituna izenpetu dute joan den martxoaren 11n, euskararen eguneroko erabilera sustatzeko asmoz.

Bukatzeko, kultura eta animazioen arloan, ekitaldi berri batzuk pentsatu ditugu hurrengo udarako, herritarrendako lagun arteko uneak, trukaketa eta partekatze guneak proposatu nahi dituzten herriko elkarte guzien parte hartzearekin.

Axuant eta zinegotzi guziak eskertu nahi nituzke bereziki libro agertu direlako, bai eta aldizkari honetan parte hartu dutenak eta gure herriko elkartearen ordezkariak ere.

Zuen hurbilekoak eta zuen burua zaindu.

Frédéric CAMOU

Herriko Kontseiluko zinegotziak

HERRIAREN 2020KO KONTU ADMINISTRATIBOA

Soberakina, orotara: + 324.285,90 €

Funtzionamendua

Gastuak **426.601,89 €**

- Izaera orokorreko gastuak	103.647,99
- Langile kargak	207.837,69
- Usaiako kudeaketa gastuak	99.153,60
- Finantza kargak	12.189,61
- Salbuespenezko gastuak	1.975,00
- Amortizazioak	1.798,00

Sartzeak **540.899,30 €**

- Zerbitzuen diru sartzeak	140.454,02
- Zergak (*tokiko zerbitzuak barne)	171.902,05
- Estatuaren emaitza	107.620,32
- Eraikinen diru sartzeak	98.900,00
- Laborantzako lurren alokatzeen diru sartzeak	1.245,14
- Finantza irabaziak	6,60
- Salbuespenezko irabaziak	289,06
- Gastuen ttipitzea	20.482,11

Inbestimendua

Gastuak **451.234,53 €**

▪ Herriko bide obrak	30.277,07
▪ Materialaren erostea	1.010,60
▪ Bizitegi kolektiboen eraikitzea	343.199,17
▪ Herriko eraikinak + etxe-lurren antolaketa	10.099,10
▪ Helbideratzea	12.273,07
▪ Elizako aparkalekua	16.685,54
▪ Webgunea	324,00
▪ Finantza eragiketak	18.699,31
▪ Maileguen interesak	18.666,67

Sartzeak **194.717,31 €**

▪ BEZaren diru itzultzea	10.221,00
▪ Ekipamenduen Tokiko Zerga (TLE)	3.917,83
▪ Dirulaguntzak: bide obrak, sartzeko errazbideak, etxe-lurren antolaketa	40.479,39
▪ Mailegua	130.000,00
▪ Finantza eragiketak	8.301,09
▪ Amortizazioak	1.798,00

Emaizta, orotara: + 182.066,09 €

***2020ko ZERGA TASA (Tokiko zergak)**

Tasak	2019ko tasa	2020ko tasa	2020ko oinarria	2020ko emaitza
Bizitegi zerga	%10,66	%10,66	498.900	53.183
Etxeekilako lurren gaineko jabetza zerga	%8,15	%8,15	318.000	25.917
Etxerik gabeko lurren gaineko jabetza zerga	%39,39	%39,39	29.500	11.620
Orotara				90.720

Informazio gisa : 2022-eko martxoaren 5-ean, Euskal Elkargoko kontseilariak, ondarkin altxatze zerga (TEOM) %6-ez emendatzea bozkatu dute, gehiengo batean. Ondorioz, 2022-ko zerga %10,10-etik %10,70-era igotzen da. Hau zerga agirian agertuko da, egokia den sailan.

EGOERA ZIBILA

SORTZEAK

- Jourdan Koziak Eiden, 2021ko urtarrilaren 13an sortua - Lagourgue Noah 2021ko martxoaren 28an sortua
- Ledée Reveredo Enzo 2021ko martxoaren 31ean sortua - Viresolvit Hugo 2021ko apirilaren 30ean sortua
- Nepomucemo Duro Vitoria 2021ko maiatzaren 17an sortua - Bellocq Gilen 2021ko urriaren 08an sortua
- Lucas Sallaberry Marius 2021ko ekainaren 17an sortua - Donapetry Juliette 2021ko azaroaren 18an sortua

HERIOTZAK

- Arotcarena Philippe, 2021ko urriaren 16an zendua, Pausa Lekuan
- Barbace Pierre, 2021ko abenduaren 28an zendua, Pausa Lekuan
- Cabalette Marie, 2021ko martxoaren 30an zendua, Pausa Lekuan
- Caltapé Arnaud, 2021ko apirilaren 16an zendua, Pausa Lekuan
- Cantalejo Patrice, décédé le 07 Juillet 2021, Lotissement Hirixka
- Deguilhem Jacqueline, décédée le 07 Juin 2021, Pausa Lekua
- Deshayes Marie Madeleine Renée, décédée le 25 Juin 2021, Pausa Lekua
- Donapetry Jean Francois, décédé le 19 Septembre 2021, Etchezaharrian
- Ducamp Jean, Louis, René, décédé le 24 Avril 2021, Pausa Lekua
- Duhalde Marie-Thérèse, décédée le 22 Avril 2021, Pausa Lekua
- Ehuletche Marie, Louise, décédée le 31 Décembre 2021, Pausa Lekua
- Elizagoien Ernest, décédé le 20 Octobre 2021, Pausa Lekua
- Errecart Jean-Batiste, décédé le 10 Septembre 2021, Pausa Lekua
- Etchemendy Irma, Marie-Jeanne, décédée le 26 Février 2021, Pausa Lekua
- Fily Christiane, décédée le 11 Juillet 2021, Pausa Lekua
- Gestèbe Louise, décédée le 17 Décembre 2021, Pausa Lekua
- Gimello André, Louis, décédé le 30 Avril 2021, Pausa Lekua
- Goyenetché Marie-Thérèse, décédée le 07 Juin 2021, Pausa Lekua
- Hirigoyen Marie-Jeanne, décédée le 1^{er} Janvier 2021, Pausa Lekua
- Laborde Jean Louis, décédé le 16 Avril 2021, Pausa Lekua
- Lalanne Liliane Germaine, décédée le 24 Avril 2021, Pausa Lekua
- Lassalle Jean-Pierre, décédé le 09 Juillet 2021, Garatian
- Lataillade Marie Léonie Yvonne, décédée le 15 Juin 2021, Pausa Lekua
- Leïza Pascal, décédé le 09 avril 2021, Pausa Lekua
- Leroux Françoise Amélie, décédée le 16 Juillet 2021, Pausa Lekua
- Monguillot Bernard Albert, décédé le 28 Avril 2021, Pausa Lekua
- Monguillot Léonie, décédée le 23 Avril 2021, Pausa Lekua
- Ospital Severin, décédé le 11 Mars 2021, Pausa Lekua
- Piquard André, Jules, Maurice, décédé le 21 Février 2021, Haritzakean
- Poetsma Dinny, décédé le 24 Juin Avril 2021, Pausa Lekua
- Renaud Guy Michel, décédé le 18 Juin 2021, Pausa Lekua
- Reta Marie-Thérèse, Madeleine, Marguerite, décédée le 17 Avril 2021, Pausa Lekua
- Sabatier Robert, Louis Auguste, décédé le 06 Mai 2021, Pausa Lekua
- Sangla François, décédé le 28 Mai 2021, Pausa Lekua
- Sorcaburu Jeanne, Catherine, décédée le 14 Juin 2021, Pausa Lekua
- Suhas Jacques, Felix, décédé 30 Octobre 2021, Pausa Lekua

HIRIGINTZA AGIRIA

ERAIKITZEKO BAIMENA - ANTOLATZEKO BAIMENA

Eraikitze baimenak



- ARTAYET Patxi > bakarkako etxe bat eraikitzea
- DAVI ERNSPV6 > suntsitzea eta laborantza-eraikin bat sortzea
- GAEC BIZIARI > suntsitzea eta laborantza-eraikin bat sortzea
- CASEMAJOR Maurice > hein batean irekia den laborantza-eraikin bat sortzea
- ROUET Thierry & Pascale > bakarkako etxe bat zaharberritzea
- ETCHEVERS Clément > arditegi gisa baliatuko den eraikin bat eraikitzea, jezteko gela eta esnetegi batekin
- SALLABERRY Sandra & LUCAS Pierrick > bakarkako etxe bat eraikitzea
- GAURIAT François eta POUZADOUX Solenn > bakarkako etxe bat eraikitzea
- HERRIA > 3. & 4. lursail ohiak lursail bakar batean biltzea, 3. lursaila, 617 m²ko azalerakoa. 4. lursailleko 81 m² 5. lursailari esleitzea.
- TINU > jatorrizko baimenean adierazitako irekidurak aldatzea

Aitzineko eskaerak

- DARCHE Pierre > igerileku bat sortzea
- LAVOINE Didier & Joelle > izkinako hegazpe bat eraikitzea
- CAMOU Frédéric > pergola irekia
- FLORANGE Anthony > zurezko terraza
- CHARRITON Pierre > plaka fotovoltaikoak
- FLORANGE Anthony > 50 cm gora den sustengu murrua
- BIDART Sandrine > 1.20 m gora den murrutxo bat eraikitzea, estaldura leungarri zurizkoa
- EURL HIRIGOYEN > lursail zatiketa, eraikitze asmoz
- SYNERGIE > 9 plaka fotovoltaiko
- SALLABERRY Lydie > lursail zatiketa, eraikitze asmoz
- BELLOCQ Jean Claude > euskal gorri koloreko zureri tradizionala eta teila erromanikoak

Hirigintza agiriak

- EURL HIRIGOYEN Pierre > lursail zatiketa, eraikitze asmoz
- AMESTOY David > bakarkako etxe bat eraikitzea
- CAUDAL Rémi > 6 bizitegi nagusi eraikitzea

OBREN BUKAERA ETA ARAUEN ARABERAKOTASUNA ZIURTATZEN DUEN AGIRIA (DAACT)

Hirigintza arloko erabaki baten gaia izan diren obren aitzineko deklarazioa eta eraikitze baimena arauen arabera kototasunari buruzko egiaztapen batera aurkeztua izaten da.

2022ko bigarren hiruhilekotik goiti, herriak Euskal Hirigune Elkargoko zinpeko agente bat eskatzen ahal du; honek kontrola horiek egin beharko ditu eta, beharrez, hirigintza kodearen hausteak segurtatzen dituen agiri bat idatzi beharko.

Izenpetzaile orok, hastapenean, obrak hasteko deklarazioa aurkeztu behar duela oroitarazia da, eta, obren bukaeran, DAACTaren eskaera.

Obren aitzineko deklarazioa / eraikitze baimenari buruzko edozein galderarako, Herriko Etxeko arduradunarengana joatea gomendatua da, Hazparneko hTHParen araudiarekin bat egiten duela segurtatzeko.

2021KO DIRULAGUNTZAK

Elkarteak	
Association Française des sclérosés en plaques	50
Association pour l'Enseignement aux enfants malades	200
Bidekoekin solidarité migrants	100
Croix Rouge	50
Euskaltzaindia	100
Hemen Elkartea	100
Herria Journal	100
Herri Urrats	100
Ikas Bi	100
Integrazio Batzordea	400
Kanaldude	100
Lurrama	100
Lurzaindia	100
Mediabask	100
Restos du Cœur	200
Secours Catholique	50
Transport Solidaire	50
Ikasleen burasoen elkarteak	
Arberoa Ikastola Aintzina (15 ikasle)	300
Association Lasterka Jean Verdun (4 ikasle)	80
Elhuyar (13 ikasle)	260
Ezkia Ikastola (2 ikasle)	40
Jean Verdun (4 ikasle)	80
Ursuya (3 ikasle)	60
Ecole Sainte Thérèse (1 ikasle)	20
Xalbador Kolegioa (18 ikasle)	360
Herriko elkarteak	
Abarratia	300
ACCA Goratik	300
Artetxea	300
Erberua	300
Eskolak	
Arberoa Ikastola	6000
Ecole Sainte Thérèse	400
Ezkia Ikastola	800

OROTARA EMAN DIRU LAGUNTZAK : 11 600 €

2021EKO OBREN PROGRAMA



Bide bazterretako belhar eta zikin mozteak egiten dira herriko bideetan eta oinhan bide askotan, ekainean eta urrian.

OROTARA BEZa BARNE: 6 118,56 €

HERRIKO BIDEAK



Jauberría bidea: Lurra prestatzea, hots, lur berdintze lanak eta harriztatzea. Azkeneko lanak zuntzeko betoiz.

Zupuru bidea, 8. herriko bidea: 300 mm-ko hodi artekatuak ezartzea, segurtasun-buruarekin, eta lurkatze lanak. Betoizko isurbide begia, burdina urtuz egindako taparekin, 60x60. Hodi jalgibiderako birprofilaketa, euri urak husteko.

Zabarotzia bidea: 300 mm-ko hodi artekatuak ezartzea 12 metrotan, bi segurtasun-buruekin. Hotzean aglomeratu asfaltikoarekin egindako juntura.

Bakardatzia bidea, 5. herriko bidea: 30 metrotan irekia den izaka bat sortzea euri urak bideratzeko. Lur berdintze lanak, bide bazterreko arla 60 metrotan karrakatzeko eta birprofilatzeko.

Herriko bideak: Arla 200 metrotan karrakatzeko, lurkatzeko lurra hustuz.

Herriko lursailaren garbitze lanak: Garbitzea eta lurkatzeko lurak lursailean biltzea.

OROTARA BEZa BARNE: 11 940 €



ARBEROAN ALAIKI AISIALDI ZENTROA

Arberoan Alaiki aisialdi zentroak lau herri antolatzaileetan bizi diren familien egiazko beharrei erantzuten die. Alabaina, 2021. urtean, 125 haurrek eskolaz kanpoko zerbitzua (oporrak) baliatu ahal izan dute eta 68 haur aisialdi zentroan ibili dira eskolaldi inguruko denboran (asteazkenak).

Joan den udan, Arberoan Alaiki aisialdi zentro elebidunak 3 - 13 urte arteko 99 haur errezibitu ditu uztailaren 8tik agorrilaren 13ra, 7:30etik 18:00etara, astelehenetik ostiralera, Izturitzeko eskolan. Haurren banaketa, horrelakoa izan da:

- Aiherran: 37 haur
- Izturitzen: 28 haur
- Donostiran: 22 haur
- Donamartirin: 10 haur
- Beste herrietan: 2 haur

Bi zuzendarik osatzen dute lantaldea, bakoitza denbora erdiz: Carmen CARCELLER, ZIGA diplomaduna eta Karine HILDÉRAL, ZIGA formakuntzan. Egonaldi osoaren denboran banatuak, AIGA diploma duten 7 animatzailek hartu dute haurren ardura (Uxue ELOSEGI MARTINON, Elorri LANDABURU, Pedro FERREIRA, Elisa BARNETCHE, Itxaro DUNATE, Elodie CAZAURAN eta Iban SALDUMBIDE), AIGA formakuntzan diren 4 ikastun langilek (Xavier MARCOS, Laurie LARRANDA, Leire JAURENA eta Leire SUZANNE) eta diplomarik gabeko animatzaile batek (Chloé PAGADOY) lagundurik.

Haurrak populu desberdinak ezagutzera joan dira (inuitak, zirkuko artistak, galiarrak, indianoak, piratak eta sorginak), eskulanak, gorputz adierazpena, kirola edo esperientzia zientifiko batzuen bitartez. Ateraldi bat antolatua izan da Ttiki Lekura, gaineratekoak ezeztatuak behar izan dira Covidarengatik.

Horren harira, aisialdi zentroak bere ateak hetsi behar izan ditu bi astez, Covid kasu positibo batzuen ondorioz. Ezbehar latza lantaldearentzat, sasoi era arrunt berezian bukatu baitute. Aisialdi zentroa apirileko oporretan ere hetsirik egon da.

70 haurrek izena eman zuten otsaileko oporretan etortzeko, ihauterien gaiaren inguruan (Izturitzeko 27 haur), eta urriko oporretan, magia eta zoramenduaren gaiaren inguruan (Izturitzeko 25 haur).

Asteazkenei dagokienez, zentroak gehienez 40 haur errezibi ditzake. 2020 - 2021 ikasturtean zehar, 68 haur ibili dira zentroan (Izturitzeko 21 haur). Gutxi gorabehera, 35 haur etorri dira asteazken goiz guziz eta kanpoko esku hartzaileek eramandako jarduera elebidun anitzez gozatu dute (dantza, arte-terapia, zirkua, pilota).

Esku hartzaileez gain, Aurélie BISCAYCHIPYk, Audrey IPUYk eta Elorri LANDABURUK mota anitzeko jarduerak proposatzen dizkie haurrei, haien erritmoari egokituz.

Argibideak nahi baldin badituzu, ez duda Carmen CARCELERREkin harremanetan sartzea ondoko helbide elektronikora idatziz: arberoanalaiki@isturitz.fr, edo 07.86.49.00.15. telefono zenbakira deituz. Izturitzeko herriko etxea ere dei dezakezu 05.59.29.62.84 telefono zenbakira, zentroaren ibilerari buruzko edozein argibiderako.





BIGA BAT HERRIARTEKO ESKOLA ELKARGOAK (HEE) - AIHERRA ETA IZTURITZEKO ESKOLA PUBLIKOAK

Biga Bat HEEak Aiherra eta Izturitzeko eskola publikoak batzen ditu.

Herri bakoitzeko zinegotziz osatutako sindikatu batzorde batek haren ibilera segurtatzen du. Horien artean dira Frédéric Camou eta Arño Gastambide auzapezak, eta ikasle gurasoen ordezkariak.

Arño Gastambide da honen lehendakaria.

COVIDari lotutako osasun larrialdiak ikasturtea markatu du, besteak beste 4 mailatan finkatutako protokolo batekin. Egoeraren arabera, horrek neurrien indartzea edo arintzea eragin du (maskara kentzea, kasu kontaktuen kudeaketa arinagoa, etab.).

Irakasleek antolatutako ateraldi batzuk egin ahal izan dira halere, adarlotze ibilbide bat Angelun Aiherran eskolatutako haurrentzat, Sarako animalia-parkearen bisita Izturitzen eskolatuak direnentzat.

2021-2022 urterako, HEEak 85 ikasle zenbatzen ditu, horrela banatuak:

- **Izturitzeko eskolan** (ama eskolako lehen urtetik lehen mailako lehen urtera): 42 ikasle, frantsesezko irakasle 1, euskarazko irakasle 1 eta 3 ABLA elebidun
- **Aiherrako eskolan** (lehen mailako bigarren urtetik bosgarren urtera): 43 ikasle, frantsesezko irakasle 1, euskarazko irakasle 1.

Haur guziak sail elebidunean dira, irakaskuntza ordutegi partekatuan egiten da: 12 oren frantsesez eta 12 oren euskaraz, bakoitzak bi egunetan banatuak.

Eskola bakoitzean antolatutako haurtzaindegia batek haurrak errezibitzen ditu 7:30etik goiti; arratsaldean, 18:00ak arte ibiltzen da, desinfekzio protokoloa kontuan hartzeko gisan.

Urririkako joan-jinkari batek haurren garraioa segurtatzen du eskola batetik bestera, segurtasun baldintza hobereenetan, laguntzaile baten presentziarekin bidaia guzietan.

Jantegia badabil herri bakoitzean, langile kalifikatuak ikasleen ardura hartzen dute bazkaltzeko eta bazkalondoko denboretan.

HEEa lehentasunezko lurraldean eta mendi gunean kokatua da. Ondorioz, haurrak errezibi ditzake bi urtetik goiti.



GIZARTE EKINTZAKO UDAL ZENTROA (GEUZ)

Definizioa: GEUZak herriko gizarte arazoak kudeatzen ditu. Bere aurrekontu propioa dauka. Auzapeza izaten da honen lehendakaria, eskubide osoz.

9 kidek osatzen dute administrazio kontseilua, horien artean:

- **5 zinegotzi tituludun:** Frédéric Camou, Virginie Légarto, Nickie Lelorec , Monique Lohiague, Karine Malé izengoitiz Cazot.
- **Zinegotzi ordezkari bat:** Myriam Gourgues
- Familien, adintsuen eta elbarrituen edo baztertzearen kontra eta gizarteratzearen alde borrokatzen diren **elkarleen 4 ordezkari:** Bernadette Ascery, Claude Candiard, Marie-Pierre Casemajor, Marie-Josée Lacroix.

Esleipenak:

- Nahitaezkoak: Gizarte Ekintzako dosierrak osatu eta departamenduko zerbitzuei helarazi
- Hautuzkoak: araudiak "prebentzio eta gizarte-garapenerako ekintza orokor bat" eramateko baimena ematen dio (Gizarte Ekintzaren eta Familien Kodeko R123-2. artikulua), diru laguntzak esleituz "jendetzaren beharrak aztertu" ondotik (Gizarte Ekintzaren eta Familien Kodeko R123-1. artikulua)

Esleitzeko modalitateak: GEUZak ez du ohiz kanpoko beharrak estimatzeko eskumenik. Beharrez, Hazparneko GEUZari dei egiten dio diagnostiko bat finka dezan.

Diru sartzeak izan daitezke:

- Herriak ordaindutako diru laguntza
- Dohaintzak edo ondoriotasunez emandakoak

Erabakiak: Saioak ateari hetsirik iragaten dira administratzaileek sekretua gordetzeko eginbeharra bete behar baitute. Neurri bakar batek ere ez du GEUZaren bilkura agiriak afixatzera behartzen.

Gaineratekoak:

- **autokidetza:** erregistro bat dago Herriko Etxean autoa partekatu nahi dutenen esku
- **janariz hornitutako saskiak:** gutienez 75 urte dituzten eta herrian bizi diren lagunei banatuak izan zaizkie.

BERRIAK

Alokatzeen prezioak

Denen Etxea	Isturiztarrak	Kanpokoak
- Egun erdia	200 €	400 €
- Egun osoa	350 €	700 €
- Gutierrez 50 pertsonako taldea	200 €	400 €
"On Egin" kantina	100 €	200 €

Trinketea

Oren bat, argirik gabe, 18:00etatik goiti: 7 €

Oren bat, argiarekin, 18:00etatik goiti: 10 €

Larunbat goizean eta igandean 18:00ak arte, trinketea urrik da herritarrendako.

Trinketearen irekitzeko

1. Deitu 06 61 97 67 11 zenbakira, kutxaren irekitzeko kode zenbakiaren eskuratzeko.

2. Jostatu trinketea.

3. Giltza bere tokian ezarri aitzin, segurtatu trinketeko atea ongi hetsia dela.

4. Aldatu kodea, giltza-kutxa blokatzeko.

Ekipamendu publikoaren ibilera onaren bermatzeko, denen ardura da trinketea ahal bezain egoera hoberenean mantentzea. Heltzean, galdutako zaizue trinketearen egoera ona kontrolatzea; kalteak agertuz gero, azken erabiltzailea izanen da eragin kalteen erantzulea. Trinketa erabiltzen duten haur adingabeen kasuan, burasoen erantzukizuna da protokoloak errespetatzea.

Erabilera anitzeko sala edo Denen Etxea:

Herriko elkarteek urrik baliatzen ahal dute, baina elkarte bakoitzak urtean gehienez 3 aldiz baliatzen ahal du. Laugarren alditik goiti, elkarteak 100 € pagatu beharko ditu gertakari bakoitzeko.

Herriko pertsona batek sala bi egunez baliatzen badu ezkontza baten ospatzeko, alokairuaren prezioa egun batekoa izanen da.

Kasu guzietan alokairu kontratu bat sinatuko da, **gertakaria baino hilabete bat lehenago**. Kontratuari barne araudia erantsiko zaio.

Salaren alokatzeko, Herriko Etxera joan behar duzu kontratua eta barne araudia sinatzeko eta berme txekia uzteko.

Oharra: Besta Komiteak eta Herriko Etxeak jakinarazten dute mubleak (mahaiak + aulkiak) urrik prestatzen dituztela. Zerbitzu hau interesatzen bazaizu, jarri harremanetan Herriko Etxeko idazkariarekin. Hartu eta itzuliko diren bakoitzean, prestatze-erregistroa sinatu beharko da.

Jostalekua:

Eskolaldian:

Jostalekua ez daiteke erabil eskolako tenoreetan.

Jostalekua erabil daiteke asteburuetan.

Jostalekua erabil daiteke asteazkenetan, 14:00etatik goiti.

Jostalekua erabil daiteke astelehen, astearte, ortzegun eta ortziraletan, 17:00etatik goiti.

Eskola bakantzetan:

Aisialdi zentroak eraikina erabiltzen duelarik:

Jostalekua erabil daiteke egutegiaren arabera.

Aisialdi zentroak jostalekua arratsaldean erabiltzen duelarik, 18:30etik goiti jendeak erabil dezake.

Aisialdi zentroak ez duelarik jostalekua erabiltzen, jendeak erabil dezake.

Salbuespen gisa, debekatua izan daiteke jostalekua erabiltzea.

Denak goxoki sentitzeko eta denak errespetatzeko, jostalekua beti garbi utzi behar da. Horretarako, zikinontzi anitz daude denen eskura.

Idazkaritzaren ordutegia

	MARTXOATIK EKAINARAT	UZTAILAREN GOITI
Astelehena	8h00 – 12h30	8h00 – 12h30
Asteartea	8h30 – 12h30 / 13h30 – 17h30	8h30 – 12h30 / 13h30 – 17h30
Asteazkena	13h30 – 18h30	
Ortzeguna	8h00 – 12h30	8h00 – 12h30
Ortzirala	8h00 – 12h30	8h30 – 12h30 / 13h30 – 19h00

Herriko ikasle laguntzak

Goi-mailako irakaskuntzan (baxotik goiti) izena eman duten ikasle guziei galdegina zaie Herriko Etxeari lehenbailehen jakinaraz diezaiotela, ikasle laguntza bat eskura dezaten (lehen galdea egiteko, bankuko nortasun agiria eta eskolatze agiria eman behar dira). “Prépa” edo prestakuntza klasean izena eman duten ikasleek ere ikasle laguntza eskuratzen ahal dute, baina prestakuntzaren iraupenaren arabera.

Oharra: ikasle laguntza urte guziez ordainduko zaie, maiatzetik goiti, aitzineko ikasturte sartzean izena eman zuten ikasleei.

Akitania berri eskualdeko kontseiluko laguntzak

B auto permisa azterketaren prestakuntzarako laguntza: Ahalmen baldintzen arabera, 17 eta 25 urte arteko gazteek, profesional gizarteratze, IV. maila edo infra formakuntza batetik ateraturik kodearen eta gidatzearen lorpenarako 400 eta 1200€ arteko diru laguntza eskura dezakete 2019ko uztailaren 8an indarrean sartu den araudi berriaren hautagarritasun baldintzetan sartzen badira.

Brebeterako laguntza : BAFA, BAFD eta BNSSA

Ahalmen baldintzen arabera, 17 eta 30 urte arteko gazteek, Akitania Berrian bizi diren gazteek, 150 eta 400€ arteko diru laguntza eskura dezakete brebetaren arabera (ikus xehetasunak aisialdi zentroko kapituluan).

AIGA formakuntza (Animatzaile Izaiteko Gaitasun Agiria) : Pirinio Atlantikoetako CAFek eta Hego Akitaniako MSAk laguntzen ahal dute.

CAF : Foch etorbidea, 10. 64100 Baiona. Tel : 3230

MSA Hego Akitania : Marguerite Laborde Ipaza, 1. 64000 PAUE. Tel : 05 58 06 55 00

Eskualdeko laguntzak ere eskatzen ahal dira: <http://les-aides.nouvelle-aquitaine.fr>

Edozoin informazioarentzat AIGA edo BAFD-i buruz : <http://www.jeunes.gouv.fr/bafa-bafd>

Errolda, “Defentsa eta Herritartasuna” eguna

Frantses herritartasuna duen orok, 16 urterekin, Herriko Etxeak errolda dezan galdegin behar du. Baitezpadakoa da konkurtsoetara, etsamina publikoetara eta gidabaimenera aurkeztu ahal izateko.

Hilerria

Herriak bost hilobi sortu zituen. Lau libro dira. Interesa duen orok Herriko Etxeari galda diezaioke.

Hilerriko lekuen ematea

Familiako hilobi baten jabea bazara, segurta zaitez jabego titulua baduzula; haurrei ematen ahalko diezu. Argibide gehiago nahi izanez gero, Herriko Etxeari galda.

Webgunea / Herriko berriak

Herriko azken berriak, hurbilketa administratiboak, agiriak eta informazioak, isturitz.fr internete gunean aurki ditzakezue.

Informazio hauek Internet bidez jaso nahi badituzue, igor zuen helbide elektronikoak:

isturits-com@outlook.fr

Zuntza

Oraingoan, Fibre 64 zuntz optikoari lotu daiteke gure herrian operadore batzuen bidez. Sare arazoengatik Internet harpidetza baten hartzeko zailtasunak baldin badituzu, Herriko Etxeko idazkaritzari jakinaraz, otoi. Orduan, THD64 zerbitzuarekin harremanetan jarriko gara.

Esteka honen bidez, jakiten ahal duzu zure etxeak zuntz optikoa izaten ahal duen:

<http://thd64.fr/carte-deligibilite/>

Garraio solidarioa

Hazparneko Lurraldean garatua den garraio solidario zerbitzu hori elkarte batek darama bere kide boluntarioekin. Astelehenetik ostirala arte dei daiteke 8:30 eta 18:00ak artean (larunbatetan eta igandetan boluntarioak libre badira).

NORENTZAT

Garraio baliabiderik ez duten pertsonak, noiztenkako edo modu erregularrean aguntza behar duten pertsonak etxetik puntu finko batera eramateko. Zerbitzu hori baliatzeko (erreserba egin 48 ordu aintzin), deitu Joëlle Erguy herriko erreferenteari, gidari boluntario batekin harremanetan sar dadin.

BOLUNTARIOAK / GIDARIAK

Gidariak behardunak heien etxetik helmugarat garraiatzen dituzte eta berriz heien etxerat ekartzen heien ibilgailuekin. 0.30€ kilometrokako parte hartzea galdegina da onuradunaren partetik gidariari zuzenean. 3€ko urteko harpidetza bat ordaindu beharko da aurrez «Hazparne Lurraldeko Garraio solidarioa» elkarteari.

Mementoan, elkarteak bere herriko ordezkaria bilatzen du.

Inplikatu nahi baduzu, dudarik gabe deit dezakezu : 06 95 14 88 67.

Komertzio ibiltariak

Beren mozkin ta zerbitzuak balia ditzazkegu :

Mutturfin Food Truck-ak, asteko menu bat eta anburgesak lur sagar frijituekin proposatzen ditu, lekuko mozkinaz hornituak. Bi asteartetik behin trinketeko aparkalekuan egoiten da, 18:45-etarik goiti.

Rotisserie erretegiak, oilasko, nuggets, ta lur sagar frijituak proposatzen ditu. Ostiral arrats guziez trinketeko aparkalekuan egoiten da.



GURE BIZI INGURUNEA ZAIN DEZAGUN DEBEKATUA DA LURREAN HONDARKINAK UZTEA

Oieskeria gehiegi ikusten dituzte oraino Euskal Hirigune Elkargoko bilketa zerbitzuko langileek!
Hondarkinen biltzeko itzulietan, zernahi gauza ikusten dituzte lurreen –etxeko hondarkinen zikinontzi zakuak, banaketako kartoi marroi zabalak, hondarkin berdeak edo tamaina handiko hondarkinak–, baina ez behar luketen ontzietan!

Oieskeriak GELDI!

Hondarkinak lurreen uztea –dela leku publikoetan, dela leku pribatuetan– oieskeria gisa kontsideratua da; eta bilketa ontzi baten zolan uzten direlarik ere (bilketa-araudiaren ez errespetatzea).

Jendetasunaren kontrako jokabide horiek (hondarkinak uztea naturan edo edukiontzien zolan) arau haustea dira. Hondarkinak pausatu dituen erabiltzaileak 1.500 euro arteko isuna biltzen ahal du, egintzaren larritasunaren arabera.

Gainera, hondarkinak lurreen uztean, kutsadura arriskuengatik ondorio negatiboak, anitzak eta zuzenak ekartzen dituzte, bai herritarren bizi kalitatean, bai ingurumenean eta osasun publikoan. Azkenik, hondarkin horien biltzeak eta lekuen garbitzeak gastu gehigarriak sortzen dizkio Elkargoari.

Legez kanpoko pausatze horien kontrako baliabidearen indartzea

Zinpeko elkargoko langileak, polizia zerbitzuen osagarri gisa, isunak ezartzen hasiko dira urte honen hastapenetik.

Hondarkintegia: hondarkin handi edo arriskutsuendako soluzio bakarra!

Produktua hondarkin bilakatzen delarik edo axola gabe botatzen delarik ez dira desagertzen ingurumenean eta osasunean dituen ondorio kaltegarriak. Justu alderantziz.

Hau da kalterik ez eragiteko soluzio bakarra: hondarkintegia.

Gaur egun, hondarkintegiek behar diren ekipamendu guztiak dituzte erabili nahi ez diren produktu horiek hartzeko eta zinezko soluzioak eskaintzen dituzte hondarkinak sail egokietan birziklatzeko eta balorizatzeke.

Nahi ez diren kartoi, muble, etxetresna elektriko, hondarkin berde eta bestelako hondarkin bereziak uzteko, joan Ipar Euskal Herriko 26 hondakineterik batera!

Etxeko hondarkinak murrizteko soluzioa?

✓ Bereiztea: Zikinontziak arintzeko, oroit paketatze estalki birziklagarriak, berina eta papera araberako bilketa-zutabeetan botatzea, bereizketa gomendioak errespetatuz.

✓ Konpostatzea: Etxeko hondarkina osatzen duten hondarkinen %30 eta %40 artean baloratzeko, konpost-ontzi bat erabiltzen ahal duzu.

Beskoitzeko ondarkintegia Ordutegia

Astelehena eta asteazkenetan : 15.00 – 19.00

Ortzegunetan : 10.00 – 12.30 / 15.00 – 19.00

Larunbatetan: 10.00 – 12.30 / 14.00 – 18.00

Heletako ondarkintegia Ordutegia

Astearte eta ostegunetan: 16.00 – 19.00

Larunbatetan: 10.00 – 12.00 / 13.00 – 17.00

HONDAKINEN BILKETAREN BERRANTOLAKETA IZTURITZEN

Euskal Hirigune Elkargoak hondakinen bilketa aldatuko du 2022ko bigarren hiruhilabetekoan Hazparneko lurraldearen parte batean (Izturitze eta Donamartirin) eta Iholdiko sektorean (Armendaritze, Iholdi eta Landibarren).

Araudiaren betebeharreri eta ingurumenaren erronkeri erantzuteko, zerbitzuaren berrantolaketak halako helburuak ditu :

- ✓ hondakinen lurperatzea murriztea
- ✓ hondakinak balioztatzea konpostaketaren, birziklatzearen edota berrerabilketaren bidez.

Etxe hondakin eta estalki birziklagarrien ontzi errotadunak kenduak izanen dira, bilketa gune orokorren sortzeko herria bakoitzean. Gune bakoitza zure eguneroko hondakinak uzteko edukiontziz hornitua izanen da:

- Etxe-hondakinen edukiontzia: gehienez 50 litroko zaku hetsi batean edo gehiagotan uztea ahalbideratuko dute eta ezagugailu baten bidez erabilgarriak dira.
- Estalki birziklagarrien, paperaren eta berinaren edukiontzia: nahas-mahas botatzea ahalbideratuko dute, zakurik gabe.
- Horren osatzeko, pila eta ehunen edukiontzia hedatuak izanen dira lurraldean barna.

Oroitu : beste hondakin guztiak (trabagarriak, kartoiak barne ; pozoitsuak...) hondakindegira eraman behar dira. Zikintegi basatiak (edukiontzien oinetan ere) eta hondakinen erretzea debekatuak dira eta isunez zigortuak.

Bilketa dispositibo berriaz gehiago jakiteko eta etxe-hondakinak edukiontzietan uzteko beharrezkoak izanen diren ezagugailuak berreskuratzeko bilkura batean parte hartzeko gonbidatuak izanen zirezte 2022ko apirilaren 22an ostiralekin arratsaldeko 8:30etan denen gelan.



Hondakinen prenbentzioa, bilketa eta balorizazioaren zerbitzuarekin harremanetan jartzeko:

☎ 05 59 57 11 80

✉ dechets.barnekalde@communaute-paysbasque.fr

EUSKAL HERRIKO MENDIEN ESKUALDEKO PARKE NATURALA (EPN)

Euskal Herriko mendietan, Eskualdeko Parke Naturalaren sorkuntza 2021ean abiatu da. Euskal Hirigune Elkargoko mendi politikaren partaidetza atalean sartzen den urraspide hau Euskal Herriko Mendi Elkargoen Batasuna (EHMEB) eta Eskualdeko Kontseiluarekin eramana da.

Eskualdeko Parke Natural bat (EPN), zer da?


- Biztanleak dituen baserrialdeko lurralde bat, bere natura-, ondare- eta paisaia-balio handiarengatik ezagutua.
- Lurralde andeakorra
- Dituen ondareen babesean eta balioztatzean oinarritutako garapen iraunkorreko proiektu hitzartu baten inguruan antolatutako lurralde bat
- Nortasun handiko lurralde bat

Zer da bere xedea?

- Natura-, kultura- eta gizaki-ondarea babestea eta balioztatzea
- Ingurumena zaintzen duen ekonomia-, gizarte- eta kultura-garapen eta antolaketaarako politika berritzaile bat plantan ezartzea

EPN proiektu hau lurraldeko sozioprofesionalekin eta tokiko elkargoekin eraikitako lurralde proiektu bat da. 15 urtetarako bere lurraldearen babeserako eta garapen iraunkorrerako proiektua gauzatzen duen kontratua. Euskal Herriko mendiaren garapen iraunkorreko proiektu honek zenbait urte iraunen du proiektu/itun baten idazketarekin. Proiektu ekarleei eta herriei sostengu teknikoa eta diru mailakoa ekarriko duen proiektua. 2022tik goiti, sindikatu misto bat eraikia izanen da eremuko lantalde eta partaideekin, gaikako batzordeekin, kontseilu zientifikoarekin, gizarte zibilarekin, partzuerrekin (estatuko zerbitzuak, LUKE, mugako partzuerrak...), Eskualdearekin, Departamenduarekin, Euskal Hirigune Elkargoarekin eta Euskal Herriko lau elkargoak batzen dituen EHMEBarekin, hots, Baigorri, Garazi, Oztibarre eta Zuberoa. Herriko kontseilu guziek bozkatu beharko dute PNR proiektu horren alde ala ez.

Ipar Euskal Herriko 111 herri hautagarrien eremua (Izturitze barne - ikus beheko mapa)




ERREKAK ARTATZEA

Ur bazterreko bizitzaile jabeen esku dago erreka maiz artatzea.

Bi hegiak bi jabe desberdinenak baldin badira, bakoitza izaten da ohearen erdiaren jabe, erreka-erdi-
asmatzen dugun lerro bati jarraikiz, kontrako agindurik ez bada.” Ingurumenaren Kodeko L215-2. artikulua.

“Ur bazterreko bizitzaile jabea erreka maiz artatzera behartua da. Errekaren oreka-profila mantendu behar du, uren isurtze naturala ahalbidetu eta haren egoera ekologiko onean parte hartu, bestek beste, metaketak, porroskak eta lur multzoak kenduz xedarratzearen bidez edo ur bazterreko landareak birlandatuz”. Ingurumenaren Kodeko L215-14. artikulua.



ZAKUR ERRATUAK



Badu zenbait hilabete ohartzen garela zakur batzuk noraezean dabiltzala gure herrian. Trabak sortu dituzte, batez ere artaldean aldean. Oroitarazten dizuegu zuen zakurrak zuen zaintzapean egon behar direla eta zuengana itzuli behar direla deitzen dituzuelarik.

IBiLKETA ETA BERE OHIDURAK

Eguraldi ederrarekin batera heldu da ibilaldien garaia, gure bide eta mendietan. Ibil gaitezen segurtasun osoz eta gure ingurumena eta ohidura desberdinak zainduz, hala nola laborantza jarduerak:

- Gogoan hartu hesiak hestea zuen gibeletik
- Ahalez zuen zakurra ez ezazue ibilaldira eraman, edo sokatik atxik ezazue
- Animaliak ez hunki eta ez bazkatu
- Suak debekatuak dira
- Ibilbide bazterrean diren etxe pribatuak errespetatu

Argibide gehiagorako: www.communaute-paysbasque.fr

Ipar Euskal Herriaren mailan, Tokiko Ibilaldi Plan berrian sartuko liratekeen oinezko eta mendiko bizikleta ibilbide berriak finkatzeko lanean ari da herria.



L'ÉLAGAGE : ON VOUS DIT TOUT !


ÉLAGUER POUR FACILITER LE DÉPLOIEMENT DE LA FIBRE OPTIQUE ET LA MAINTENANCE DU RÉSEAU

POURQUOI FAUT-IL ÉLAGUER ?


Les plantations situées à proximité des réseaux aériens nécessitent une surveillance et un entretien régulier. Trop proches des câbles, elles peuvent provoquer un mauvais fonctionnement, voire en cas de frottement ou de chute de branches une interruption de service. Les végétaux peuvent également gêner ou empêcher l'accès aux poteaux.

QUI DOIT ÉLAGUER ?

Si les plantations sont implantées sur une propriété privée et que les distances entre les branches et les lignes ne respectent pas la réglementation (voir illustrations), alors conformément à l'article 85 de la Loi du 7 octobre 2016 pour une République numérique, il est de la responsabilité du propriétaire du terrain, du fermier ou leurs représentants, de prendre en charge les opérations d'entretien des abords d'un réseau ouvert au public telles que le débroussaillage, la coupe d'herbe et l'élagage. L'élagage peut être réalisé par le propriétaire lui-même ou par une entreprise agréée de son choix.



RÉSEAU ÉLECTRIQUE





Il convient d'attirer l'attention des propriétaires en leur précisant :

1. qu'aucun travail d'élagage ne doit être entrepris aux abords des lignes électriques sans accord préalable d'ENEDIS (à saisir en adressant l'imprimé cerfa n°90-188) et nécessite une habilitation pour travailler dans un environnement électrique. Par ailleurs, dans la majorité des cas, ENEDIS est en charge de l'élagage, il est donc nécessaire de se rapprocher de cette dernière.
2. qu'il est formellement interdit à quiconque de tenter de monter sur les poteaux électriques ou téléphoniques.

QUELLES SONT LES DISTANCES À RESPECTER ?

Chaque plantation du domaine public ou privé doit respecter une distance de 1,5 mètres et 0,50 mètre en largeur autour des lignes téléphoniques.



IPAR EUSKAL HERRIKO INTERES OROKORREKO PROGRAMA (IOP)

Tresna bultzatzaile sustagarria:

- ▶ Etxebizitza pribatuen zaharberritzea,
- ▶ Haien erosotasuna hobetzea,
- ▶ Hutsik diren etxebizitzak berriz merkaturatzea, eta, ondorioz, etxebizitza hitzartuen ekoizpena laguntzea.

Gure herrian, hutsik den etxebizitza bat baduzu. Jakin ezazu Euskal Elkargoak etxebizitzak zaharberritzeko 1,6M €ko laguntza programa bat plantan ezarri duela gure lurraldean.

SOLIHA Pays Basque operadoreak bermatzen du familiei ekarritako laguntza.

Zaharberritze edo/eta egokitze proiektu guzientzat (zahartzea, elbarritasuna...), Lurraldeko Etxebizitza-Proiektua zerbitzuak laguntza teknikoa, administratiboa eta diru mailakoa proposatzen dizu.

Laguntza teknikoa

- Urririkako aholkularitza eta laguntza teknikoa etxe jabe guzientzat,
- Etxebizitzaren bisita eta diagnostiko teknikoa. Honen barne dira, egoeren arabera: andeatze, sanotasun eskasia diagnostikoak, ebaluazio energetikoa, autonomia diagnostikoa edo ergoterapeutaren txostena, higiezin diagnostiko gehigarriak (amiantoak, beruna, argindarra, xilofagoak).

- Diru mailako laguntza eta laguntza administratiboa

- Erabilgarri diren finantzabide guziak estimatzea;
- Diru laguntza dosierrak segitzea lehen harremanetik diru laguntzaren ordainketa arte.



Telefono-permanentziak: astelehen eta asteazkenetan, 14:00etatik 17:00etara
Jacques Laffitte karrika, 9 - 64100 BAIONA Telefono zenbakia: 05.59.46.31.50

ELKARTEEN BiZiA

HERRIAN



Isturitzeko Gazteria

BESTA BATZORDEA

Herritar maiteak,

2021eko osasun egoera latzagatik ere, besta batzordeak herritarren bazkaria antolatu ahal izan du 2021eko urriaren 2an.

Alabaina, egun hau antolatua izan zen ekitaldirik gabeko urte luze honen ondotik herritar guziak biltzeko xedearekin. Ehun bat herritar hurbildu da egun eguzkitsu politaz goatzeko bazkari baten inguruan.

Bulegoari dagokionez, lantaldea berriztatua izan da. Geroztik, horrela osatua da :
Maritxu HARAMBOUREk lehendakaria izaten segitzen du, Matthias SANBERRO lehendakariordea dela eta.
Manon MESPLES diruzain berria da. Anaïs CASEMAJOR eta Amaia MIMIAGUE dira idazkari berriak.

Urtea zaila izanik ere, osasun egoerari begira, batzordea motibatua da eta ideia bat baino gehiago jalgitzen dira 2022. urtea ahal bezain ongi antolatzeko eta alaitzeko.

Batzordeak herritar, boluntario eta parte hartzaile guziak eskertu nahi ditu. Eskerrik beroenak kide bilakatu diren gazteei ere, elkarteari oldar berri bat ekartzen dutela eta.

Hurrengo urtean saldo handian ikusiko zaituzteguna espero dugu.

Besta batzordea.



2022. urtearen aitzin-gustu gisa, zuekin biltzeko lehiaz gaude.

ARBEROAKO JOALDUNAK

XXI. mendean ere, joaldunen soinua behar baitugu negu eta garai ilunetatetik ateratzeko, Arberoako joaldunen taldea sortu dugu. Talde hunek Izturitze eta auzo herrietako herritarrak biltzen ditu.

Orain arte, elkarteak zonbeit ateraldi egin ditu Donamartiri eta Izturitzeko kaskoetan, Uztaritze edo Donapaleuko taldeek prestatutako joareekin...

Egungo egunean, gure joareen erosteko dirua biltzen ari gara, sagarnotegi, kontzertu, salmeta gisako animazioak antolatuz.

Luza belarriak ! Hean hean joareen soinua entzunen duzuen Arberoan gaindi ondoko hilabeteetan !



ARTETXEA ELKARTEAK

Urte hastapen zailaren ondotik, Artetxeak bere erritmoa berreskuratu du ekainetik goiti antolatu ahal izan ditugun animazioekin.

Beti bezala, kultura egitarau zabala eskaini nahi izan dugu, gustu guziendako ! Bertso, kantu, dantza, antzerki eta beste ! Oroit gaitezen elgarrekin...

Ekainean, mutxiko gaua izan zen « Rita Mutxiko » taldearekin.

Uztail agorrilean bi bertso saio « Bertsularien lagunak » elkartearen partaidetzarekin.

Agorril undarrean « Leizea » eta « Enaut Elorrieta » ren kantaldia.

Urriko lehen igandean kantu bazkaria izan zen Watsoekin eta azken hogeitertan taula gainera igana ez zen « GUK » taldea hor ginuen bere kantu hoberenen kantatzeko !

Urrian ere, « Kultura euskaraz » antzerki aratsaldea izan zen, haurrentzat, eta gauean helduentzat Euskal Herri elkargoko kultura zerbitzuaren partaidetzarekin.

Abendoan erosi berri ginituen bideo proiektugailu eta pantaila haundia estrenatu ginituen, « Olentzero » marrazki biziduna ikusi ahal izan zuten haurrek eta gauean « Urte berri on Amona » filma helduek ... zineman bezain untsa !!!

Gure antzerki troparen berri orain. « Sakatrapu » antzerkia eman zuten urri hastapenean herriko hamar gaztek. Ondotik Urruñako antzerki eskolak gomiturik, Urruñako zineman eman zuten, Makeako Jostakin elkarteak gomiturik Lekornen eta Ortzaizeko Herriko etxeak gomiturik Ortzaizen. Arrakasta ederra beraz jaz ere ! Araiz bide beretik segituko dute.

Bestalde, aste guzietan, aktibitateak ere segitu dute.

-Yoseikan budo haur eta helduentzat asteartetan

-Yoga asteazkenetan helduentzat

-Komunikazio Ez Bortitza tailerrak hilabeteko lehen asteartetan helduentzat

-Euskara kurtsoak helduentzat astelehen eta ostegunetan

- « Artetxea kantuz » kantu taldea eta gitarra kurtsoa hilabeteko azken ostiraletan

-STEP kurtsoak haur eta helduentzat bi aste guzietan ostiraletan

2022 urtearentzat ere ideia frango badugu, hurbildu arau jakinaraziko dauzkitzuegu !

Elgar ikusiko dugulakoan... Urte berri on deneri !





ERBERUA

2020. urtean zehar, pandemiaren ondorioz, elkarteak ezin izan du 2019-2020 pala zabaleko txapelketa bururatu; ez eta urteko ibilaldia antolatu.

2020ko irailaren 26an, epaile boluntarioen bazkaria eta edantegia mantendu ahal izan dugu; hogeita hamar bat lagun bildu ziren Haramboure jatetxean lagun arteko une goxo bat pasatzeko garai goibel hartan.

2021. urtea

2021eko uztailaren 31ko 2020 Biltzar Nagusiaren denboran, ERBERUAK elkartearen moral eta diru mailako bilanak aurkeztu ditu, apalenera murriztuak urteko jarduera eskasiari begira.

36 urtez txapelketa antolatu duen Dominique CASEMAJOREk beste norbaiten esku uztea erabaki du. Biltzarraren bukaeran, eskaini dituen urte guziengatik eskertua izan da.

Elkarteak antolatu duen lehen ekitaldi nagusia oinezko eta mendiko bizikleta ibilaldia izan da, urriaren 31n. 168 txirrindulari eta 154 ibiltari bildu ditu, helduak zein haurrak.

Bihotzez eskertzen ditugu:

- boluntarioak, egunean bertan aparkatzeko, izena emateko, hornitzeko lagundu baitute, eta segurtasun puntuetan eta janari zerbitzuan ere egun osoan aritu baitira, batez ere sukaldariak.
- beren lurretan ibiltzeko baimena utzi diguten jabeak, eta beren traktoreez bide batzuk garbitu dituzten laborariak.
- hainbat gualdi zirkuituak prestatzen iragan dituzten boluntarioak, eta ibilaldia hasi baino lehen sasiak garbitu dituztenak.
- ibilgailuak segurtasun osoz aparkatzeko beren larrea gure esku ezarri duten Jean Michel eta Sylvain Donapetry.
- Hornitze-gune bat aterpetzeko bere arditegia prestatu digun David Haramboure.

2021ean, bigarren urtea segidan, ERBERUAK Hazparneko "Uhaldia Etxaldea" elkarte diruz laguntzea erabaki du. Elkarte honen helburua da baratzezaintza biologikoan ari diren eta enplegutik urrunduak diren heldu mistoen gizarteratze soziala eta profesionala laguntzea.

Bigarren ekitaldia:

2021-2022 Pala Zabaleko txapelketak 53 talde bildu ditu, Euskal Herri osotik etorriak. 2021eko azaroaren 29an hasi da eta 2022ko apirilaren 2an bukatuko da finalekin.

Boluntarioek animazio honen jarraipen ona segurtatzen dute, giro goxoan. Horiek dira: Philippe Garispe txapelketa antolatzen, José Carceller edantegiaz arduratzen, epaile guziak eta edantegian ari diren guziak. Bihotzez eskertzen ditugu haien parte hartze sutsuarengatik.

Jean Jacques Ascery eta Xabi Orbezua epaileak eskertzen ditugu, lehen txapelketatik goiti hor direla eta; nahi izan dute, arrazoi guziz, erretretaz gozatu.



GORATIK, IZTURITZEKO ONETSITAKO IHIZI ELKARTEA - 2021

Herriko Onetsitako Ihizi Elkartek hogeita hamar bat ihiztari biltzen ditu (horietarik erdia ez delarik herrian bertan bizi).

Gure lurraldea itxura anitzekoa da (oihanak / larreak / iratzelekuak / pentzeak), baita aurki ditzakegun animaliak ere: orkatzak, basurdeak, untxiak, erbiak, usoak, biligarroak, basoilarrak eta pekadak direlarik bereziki ihiztariak interesatzen dituztenak.

✓ Ihizi larriari (orkatzak / basurdeak) lotzen dira gero eta ihiztari gehiago, izan talde-ihizian (ihizaldiak) edo bakarkako ihizian (zelata-ihizia, postu finkoko ihizia). Bakarkako ihizia gero eta gehiago demokratizatzen da, isila eta hautuzkoa delako: ihiztariak ez du agertzen zaion lehen animalia tirokatzen, gazteak eta mendreak hobesten ditu (harrapari handiek egiten duten bezala). Gaur egun, Izturitzeko herrian, ihizi-planari eratzikia zaion orkatzen herena zelata-ihizian / postu finkoko ihizian ihiztatuak dira.

✓ Bere aldetik, ihizi xeheak postu finkoko ihizizaleak biltzen segitzen ditu (usoak eta biligarroak), bai eta zakur ihiztorrak dituztenak ere (batez ere basoilarrak eta pekadak).

Ihizi-zakurrarekin ihizi xehea (untxiak eta erbiak) ihiztatzen dutenak aldiz, gero eta gutiago dira. Hau ez da ihizi gutiago delako baizik eta ihizi mota honek ihizi-zakur bat baino gehiago eskatzen baitu (usaian 3 eta 5 artean) eta gastu handiak sortzen baititu (janaria eta artak).

Ihizia aire zabala da, indar fisikoa, ihizia bilatzea, zakurr(ar)en lana, maiz esku-hutsik itzultzea, batzuetan arrakasta izatea. Baina aldi oro, gure ingurumenari, besteei eta mahaiaren gozotasunari berriz lotzen gaituen jarduera da.


Ihiztatzen dugularik, bai, ihizia prestatzeko eta dastatzeko plazera ere dugu, familian, lagun edo hurbilekoekin. Eta ihizia prestatzea / partekatzea, ohoretan ezartzeko beste bide bat da eta, oroz gainetik, kalitate handiko haragia jateko aukera. Ongi jatea gero eta gehiago axola zaigularik, ihizia jatea ere axola izan beharko litzaiguke!!

Beste azalpenen artean, honek soilik justifika dezake maizegi zaharkitutzat daukaten jarduera hori. Haatik, horrelako oharrek ez dugutela gosea kentzen lasaigarria da... 😊

Horren harira, Herriko Onetsitako Ihizi Elkartek basurdekizko ekoizkin batzuk saltzen ditu:

- Lukainka izoztuak eta aiererik gabe: 10€ / kilo bat,
- Zozizona: 5€ bana
-

Argibide gehiagorako (lukainkak / zozizonak erosteko, ihizi mota bat ezagutzeko, ihiztatzeko baimenari buruzko argibideak ukaiteko...), ez duda gure elkarteko bulego kide batekin harremanetan sartzea:



Guillaume LABARERE: 06.59.91.88.04

Peyo ETCHEGOYEN: 06.79.71.67.46

Jon ETCHART: 07.82.66.15.67

BIGA BAT GURASO ELKARTEA

Pandemia garaian, Aiherra/Izturitzeko guraso elkarteak isilago egon bada ere ekitaldien aldetik, bere ahalegin guziak egin ditu irakasle taldeak proposatutako ateraldiak edota jarduerak diruztatzen laguntzeko.

Ikasleak ikuskizun batzuetara joan ahal izan dira, "Eskola eta zinema" ekitaldian parte hartu dute, ateraldiak egin dituzte...

Eguberri ospatu ahal izan dute Olentzero bere pottokarekin etorri delarik!!

2022, argitzen ari da zerumuga, nahiz eta mus txapelketa ezeztatua behar izan dugun urte hastapenean, protokolo hertsagarriarengatik. "Biga Bat" guraso elkarteak oldar berri bat hartu du 2022ko apirilaren 1ean iraganen den tonbola bat antolatuz.

Gormandizaren gaiaren inguruan, Pazkoko txokolateak eta bixkotxak salduko ditugu hurrengo hauteskundeetan. Kirola ez dezagun ahantz, maiatzaren 1ean Aiherran iraganen den ibilaldiarekin.

Elkartean sartu diren guraso berriei esker, ekintzak eramateko kemen berri bat hautematen dugu!

Hori dena gure haurren onerako bistan dena!



2021ko ihauteria



Trukatrak ikusgarria Philippe Albor eta Arantxa Hirigoyenekin



ARBEROA IKASTOLA AINTZINA

Arberoa ikastola aintzina Izturitzen kokatzen den elkarte bat da, haurrak Arberoa ikastolan dituzten burasoek osatzen dute.

Urtero ekintza ezberdinak antolatzen ditu:

- Arberoa ikastolaren eguneroko gastu ezberdinen estaltzeko (irakasle laguntzaile diren 3 langileen hilabete sariak, ikas materiala, askariak ...),
- herriko bizian parte hartzeko.

2020-an bezala, 2021. urtean ekitaldiak antolatu ditugu osasun neurrier egokituz. Beraz ez ditugu COVID garai aintzineko ekitaldi guztiak egin ahal izan, jaz bezala.

Urte berezia izan da berriz ere beraz, elkarte ainitz zailtasunetan eman dituenak.

Etxera eramaiteko talo salmentarekin abiatu ginuen urtea, urtarrilean. Ondotik, Korrika ezeztatua izanik ere, korrika ttipi lasterkatu zuten haurrek Donamartirin gaindi ibiliz. Ondotik eramaiteko menu osoak kozinatu genituen, Rougail lukinkak lehenik eta Paella ere ondotik. Berriz ere Herri Urrats ezeztatua izanik ere, bixkotx salmenta muntatu ginuen Boga kanpaina lemapean herri urratsen laguntzeko. Arberoa eguna ospatu ginuen bainan komite ttipian, aurten. Horren kariatara, zirko ikusgarria eskaini zaukun ikastolak.

Azkenik, urte undar huntan, jaz bezala, Eguberri kari, Arberoa denda birtuala proposatu dugu interneten bidez. Horren bitartez, ikastolak Euskarazko mezuekin apaindurik garagardo baso, kuadro, gatelu, zorroak eta beste banatu ditu.



Arberoa ikastolaren proiektua komunikazio empatikoan, nortasunaren eta autonomiaren garapenean, eta ingurumenaren errespetuan (ondarkinen berexketa, askari biologikoak, baratzea...) oinarritzen da.

2008an ideki zen 5 hurrekin, gaurregun 60 ikasle dira, Izturitzeko 15 haur barne.

Ikastolako ibilmoldeaz edota pedagogiaz xehetasun gehiago nahi luketenentzat, ez duda ikastolara zuzenki deituz : 05 59 29 76 23.

Edo herriko buraso hauetarik batekin harremanetan sartu :

- Aline Dupouy : 09 60 14 79 30.
- Sandrine Arotçaréna : 05 59 29 46 25.

Begira gure webgunea :

arberoaikastola.org



ABARRATIA

Lehen hiruhilekoa etxean iragan behar izan eta, haur eta helduak gogo handiarekin itzuli dira pilota entrenamenduetara 2021eko apiril hastapenean. Covid garai honen ondotik, kide kopuruen beherakada baten kezka genuen, baina ez da hala gertatu. Kide kopurua bertsua da: 49 esku huskan eta 19 gomazko paletan, 9 entrenatzaile boluntariok kudeaturik.

Kirol emaitzak onak izan dira 2021ean.

Abarratiako talde batzuek finalak jokatu dituzte, besteak beste emazteen finalak (ikus behereko taula). 21 urte dituen Pierre Etcheverryren emaitzak ere azpimarratzekoak dira, Thibault Bidartekin plaza libreko esku-huska bi finalak jokatu dituela (Euskal Herriko Batzordea eta Frantziako Txapelketa) Uhaldean elkartearen izenean, Bardozen, eta 2021eko irailetik goiti Hazparneko BERRIA trinketeko errendimendu zentroan sartu dena. Gazteenek eredutzat har dezakete.

Urteko une nagusietan, finalez aparte, klubak Aiherrako lehen elkarten foroan parte hartu duela ere gogoan atxik dezagun. Horri esker, herriko biztanle berri batzuek ezagutu gaituzte eta boluntarioei dei egin ahal izan diegu. Esku huska eta gomazko paleta arloko arduradunen bila gabiltza oraindik. Interesatuak baldin bazarete, ez duda klubarekin harremanetan jartzea.

Diruaren aldetik, elkarteak **1 137,04 €**ko irabazkin emailearekin bukatzen du urtea.

ABARRATIako zuzendari eta entrenatzaileek berripaper hau baliatzen dute Izturitzeko Herriko Etxea eskertzeko trinketa haien esku uzteagatik entrenamenduak eta txapelketak antolatzeke, bai eta familiak ere haien laguntza eta sostenguariengatik (bidaia eta sostengua entrenamenduetan).



2021/11/21

GARINDAINEKO FINALAK

ETCHEGOYEN Idoia,

ETCHEGOYEN Pantxika,

LABARERE Cloé eta

BIDART Maitena

Entrenatzailea :

ETCHEVERRY Christine

EGUNA	LEKUA	TXAPELKETA	TALDEAK	EMAITZA
2021/11/21	GARINDAINE	C.T.P.B. FINALA GOMAZKO PILOTA HUTSEZKO PALETA XITO MAILAKO NESKAK - B TALDEA	ABARRATIA 01 (ETCHEGOYEN Idoia - BIDART Maitena) DENEK BAT 04 (HARISMENDY Elena - ETCHEPARBORDE Elaia)	15/ 13/ 10 14/ 15/ 07
2021/11/21	GARINDAINE	C.T.P.B. FINALA GOMAZKO PILOTA HUTSEZKO PALETA TARRO MAILAKO NESKAK - B TALDEA	ABARRATIA 01 (LABARERE Cloé - ETCHEGOYEN Pantxika) DENEK BAT 02 (PARIS Amaia - ACHERITOGARAY Nahia)	10/ 11 15/ 15
2021/12/12	SENPERE	C.T.P.B. FINALA TRINKETEKO ESKU HUSKA KADETEAK - A TALDEA	AZKAINDARRAK 01 (LARZABAL Iban - GONZALEZ Oihan) ABARRATIA 01 (DUHALDE Xalbat - ECHEVERTZ Mattin)	40 26
2021/12/12	SENPERE	C.T.P.B. FINALA TRINKETEKO ESKU HUSKA ARTEKOAK - A TALDEA	ST PEE U.C. 01 (LOPEZ Baptiste - LASCANO Mathieu) ABARRATIA 01 (HARGUINDEGUY Xabi - DURRUTY Mattin)	40 13